


2002/07/30eko **prentsa-oharra****ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)****2002ko ekaina**

ERAIKUNTZAREN KOSTUEK EZ ZUTEN ALDAKETARIK IZAN 2002KO EKAINEAN

Urte arteko hazkunde-tasa (2002ko ekaina, 2001eko ekainaren aldean) %1,7ra iritsi zen

2002ko ekainean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorrak ez zituen balioak aldatu, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko ekaina, 2001eko ekaina aldean) begiratuz gero, %1,7rena izan da kostuen goratzea; aurreko abenduaren aldean, berriz, %2,6rena izan da lehenengo sei hilabeteetako tasaren igotzea.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia ekaineko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Ekainean, lehengaien kostuek zein lan-eskuaren kostuek ez dute inolako aldakuntzarik izan hilabeteko aldi horretan. Hala ere, urte arteko aldian, lan-eskuaren kostuek %4,0ren igoera izan dute; lehengaien kostuek, berriz, %0,3rena.

Eraikinak eta obra zibila azpisektoreek bilakaera desberdina izan dute ekainean: %0,1 igo dituzte balioak lehenengoen lehengaien kostuek, eta %0,3 jaitsi dira bigarrenarenak. Aldeak, era berean, urte arteko bilakaeran gertatu dira, zeren bi azpisektore horietako lehengaien kostuek, maiatzean, %0,3ren tasa lortu baitute *eraikinak* atalean eta %0,1ena *obra zibila* atalean, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko ekainean, hauek izan dituzte jaitsierarik handienak prezioetan: *petroliotik eratorriek* (%-4,0), *leherkariak eta gasek* (%-1,1) eta *zementu artifizialak* (%-0,5) besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenagoak kontsumitutako produktuen artean ageri dira: *makineria erabilirako osagarriak* (%4,9), *laneko arropak* (%4,7), *metalezko bestelako gaiak* (%3,9) eta *zementu artifiziala* (%3,7), eta besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA		2002KO EKAINA		
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,9	0,0	1,7	2,6
ERAIKINAK	119,4	0,0	1,8	2,5
OBRA ZIBILA	117,8	-0,2	1,6	2,9
LEHENGAIEN KOSTUA	113,2	0,0	0,3	1,7
ERAIKINAK	113,8	0,1	0,3	1,5
OBRA ZIBILA	111,4	-0,3	0,1	2,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.: 945 017 505. Faxa: 945 017 501. Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---